



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

AGIRIA, EUSKO LEGEBILTZARREKO SAREKO EGITURA BERRITZEA LIZITAZIO  
IREKIAREN PROZEDURAZ HORNITZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIAK  
BILTZEN DITUENA.

AURKIBIDEA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

- 1.- Kontratuaren xedea.
- 2.- Arauak.
3. Kontratuaren aurrekontua, kreditua izatea eta kontratuaren prezioa.
4. Prezioak berraztertzea.
- 5.- Hornikuntzaren iraupena.
6. Esleitzeko prozedura eta modua

II.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

- 7.- Proposamenak aurkeztea eta beharrezko dokumentazioa.
  - 7.1.- Arau orokorrak.
  - 7.2.- Aurkezteko epea eta modua.
  - 7.3.- A gutun-azala: Proposamen ekonomikoa, baloratu beharreko esleitze-irizpideei buruzko dokumentazioa formula eta dokumentazio teknikoarekin.
  - 7.4.- B gutun-azala: Dokumentazio administratiboa, bai eta gaitasunari eta kaudimenari buruzkoa ere.
  - 7.5.- C gutun-azala balio-iritziaren bidez baloratu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa
  - 7.6.-Eskainitako ereduak aztertzea eta dokumentazioa egiaztatzea
  - 7.7.- Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko azalpenak.

III.- LIZITATZEKO ETA ESLEITZEKO KLAUSULAK.

- 8.- Lizitatzeko eta esleitzeko klausulak.
  - 8.1.- B gutun-azala irekitzea eta kalifikatzea, C gutun-azalarekin batera, kasua hori bada.
  - 8.2.- A gutun-azalean jasotako proposamen ekonomikoa jendaurrean irekitzea.
  - 8.3.- Txosten teknikoak.
  - 8.4.- Lehentasunak esleitzean.
  - 8.5.- Behin-behineko esleitzeko proposamena
- 9.- Kontratua behin-behineko esleitzea.
- 10.- Kontratua behin betiko esleitzea.
- 11.- Esleipenak jakinaraztea eta publizitzea.





#### IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

- 12.- Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak.
- 13.- Kontratua formalizatzea.

#### V. KONTRATUA EGIKARITZEA.

- 14.- Egikaritzearen zuzendaritza eta ikuskaritza.
- 15.- Kontratua egikaritzeari buruzko arau orokorrak:
  - 15.1.- Entrega egiteko denbora eta epea.
  - 15.2.- Kontratuaren iraupena eta entrega-epeak.
  - 15.3.- Ondasunak ordezkatzeta.
  - 15.4.- Hurrenez hurrengo entregen zenbatekoa.
  - 15.5.- Instalazioa.
  - 15.6.- Ondasunak eta jarraibideak jasotzea.
  - 15.7.- Administrazioaren berandutza jasotzean.
  - 15.8.- Galerak edo kalteak entrega egin aurretik.
  - 15.9.- Entrega, garraio eta instalazio gastuak.
- 16.- Kontratistaren beste betebeharrak.
- 17.- Fabrikazio-prozesuko akatsak konpontzeko betebeharra.
- 18.- Administrazioaren ahalak.
- 19.- Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak.
- 20.- Kontratua aldatzea eta etetea.
- 21.- Kontratua lagatzea eta azpikontratatzeta.

#### VI.- KONTRATUA AMAITZEA.

- 22.- Hornikuntza jasotzea.
- 23.- Berme-epea.
- 24.- Kontratua kitatzea.
- 25.- Kontratua azkentzea.
- 26.- Bermea itzultzea.
- 27.- Epeak ez betetzea.

#### VII.-ERREKURTSOAK. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

- 28.- Errekurtsuak. Kontratazio-arloko Errekurtsu Berezia
- 29.- Administrazioaren eskubideak eta jurisdikzio eskuduna.





## I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

### 1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.1.- Oinarri teknikoen orrietan jasota datozen produktuak edo ondasunak erostea, eskuratzea eta, beharrezkoa bada, instalatzea da kontratu honen gaia. Azaleko orriko 1.1. puntuan dituzue zehazturik produktu eta ondasun horiek.

1.2.- Azaleko orriko 1.6 puntuak baimentzen baldin baditu. Eskaintza egiten dutenek puntu horretan azaldutako elementu, baldintza eta modalitateei erantzungo dieten bariantek eskaini ahal izango dituzte, eta puntu horretan bertan zehaztutako gehienezko kopuruan.

### 2.- ARAUAK.

2.1.- Kontratuak ondorengo arauak bete beharko ditu:

- a) Administrazio klausula berezien agiri honetan jasota dauden klausulak –azaleko orrian dago zehazturik nola- eta oinarri teknikoen orriko aginduak.
- b) Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- c) Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, LCSPek xedatutakoaren kontra ez dagoen neurrian.
- d) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.
- e) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.

2.2.- Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo Eusko Legebiltzarrak onartutako jarraibide, klausula-orri edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, hitzartutakoa betetzeko erabili beharrekoak gerta badaitezke, kontratistak horiek guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du.

### 3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.





3.1.- Eusko Legebiltzarrak egindako aurrekontuaren zenbatekoa azaleko orriko 9. puntuan ageri dena da; zenbateko hori, kasua hori bada, 10. puntuan aurreikusitako urtekako ordainkizunetan zatituko da.

3.2.- Administrazioak badu kontratu honen obligazio ekonomikoei aurre egiteko beste kreditu, hain zuzen ere, agiri honetako azaleko orriaren 10. puntuan aipatzen den aurrekontuko diru-izendapenari esker.

3.3.- Kontratuaren prezioa kontratua esleitzearen ondorioz ateratzen dena izango da eta ezingo da Eusko Legebiltzarrak jarritako aurrekontua baino handiagoa izan.

#### **4. PREZIOAK BERRAZTERTZEA.**

4.1.- Enpresa kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua betetzearen arriskuak.

4.2.- Dena den, prezioak berrikusteari dagokionez, agiri honen azaleko orriko 15. puntuan esaten dena bete beharko da, eta LCSPko II. Kapituluko III. Tituluak eta RGLCAPeke konkordanteek ezarritakoa ere bete beharko da.

4.3.- Azaleko orriak jasotzen ez badu prezioak berraztertzea zirkunstantzia hori ez da aldatuko egikaritze-eparen luzapenagatik betiere luzapen horren zergatia ez bada Eusko Legebiltzarrari egozteko modukoa edo ezinbesteko kasuak gertatu izana, ezinbesteko kasutzat Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 214. artikulua ezarritakoak hartuz.

4.4.- Azaleko orriak prezioak berraztertzea jasotzen badu, prezioen berraztertze hori egiteko, kontratuak dagokion kostuaren % 20an burututa egon behar du eta esleitu zenetik urtebete igarota izan behar du; beraz, ez % 20a ez eta hasi zenetik urtebete igaro artekoa ezin izango dira berraztertu.

#### **5.- HORNIKUNTZAREN IRAUPENA.**

5.1.- Kontratua betetzeko gehienez ere zenbateko epea egongo den edo zenbat iraungo duen klausula-orri hauen azaleko orriak 11. puntuan egongo da jasota, eta tarteka bete beharreko epeei dagokienez, puntu horietako 11.1 puntuak dioena bete beharko da.

5.2.- Kontratua luzatu ahal izateko, kontratuak berak izan behar du berritzeko modukoa. Luzatzeko aukera horrek edo horiek agiri honen azaleko orriko 12.





puntuak egon behar dute jasota, baina kontratuaren iraupena guztira, luzapenak barne, ezingo da lau urte baino luzeagoa izan, eta luzapenak ezin dira erabaki, bakarka nahiz osotara, hasieran ezarri epeaz harago.

## **6. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA**

Kontratu hau esleitzeko, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 122. artikulua 2. puntuak aurreikusi eta lege-testu horretako 141. eta ondorengo artikuluek garatutako prozedura irekia erabiliko da.

### **II.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA BEHARREZKO AGIRIAK**

#### **7.1.- ARAU OROKORRAK.-**

Kontratuaren xede den lizitazioan –eta aurrerago zehazten den moduan– eskaintzak aurkeztu ahal izateko, pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, espainiarra edo atzerritarra. Halaber, jarduteko gaitasun osoa eduki beharko du, bai eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko-profesionala egiaztatu ere.

Proposamenak aurkezteak esan nahiko du lizitatuzaileak klausula-agiri honetan eta agiriko azalean esaten den guztia baldintzarik gabe onartzen duela, eta orobat kontratuaren gainontzeko agiri guzti-guztietan esaten dena ere onartzen duela. Gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla adierazten duela ulertuko da, eta lizitazioaren xede diren prestazioak kontratatzeko eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Lizitatuzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu (azaleko orriak bere kasuan baimendu ditzakeen barianteen kaltez izan gabe) ez bakarka ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko baino gehiagoko kide gisa, eta bakarka lizitatzen duenak ezin izango du proposamenik izenpetu besterekiko aldi baterako elkartean. Arau horietakoren bat hausten bada, onartu barik geratuko dira lizitatuzaileek arau horiek hautsiz izenpetutako eskabide eta eskaintza guztiak.

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek ezin izango dute lizitazioan parte hartu, parte hartze horrek lehia libreari oztupoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enprekin alderatuta pribilegioak sortzen badira enpresa batzuentzat.

#### **7.2.- AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA.-**





Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamena egin behar dutenek aurkeztu egin beharko dituzte –betiere lizitazioaren iragarkian zehaztutako epean eta klasula-agiri honen azaleko 31. puntuan zehazten den lekuan– bi gutun-azal itxi (A eta B) esleitze-irizpide bakarra dagoenean edo hiru gutun-azal (A, B eta C) irizpide bat baino gehiago daudenean, salbu eta agiri honetako 7.3.5 klausulan (balorazio-fase ezberdinak) aurreikusitako kasuan, orduan gutun-azal gehiago izango baitira. Gutun-azal bakoitzaren barruan aurrerago zehaztuko den dokumentazioa joango da, eta gutun-azal bakoitzean ondokoak adieraziko dira: zer hornikuntza egiteko lizitatu nahi den, kasua hori bada, lotea edo loteak, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-deiturak eta nolako izaerarekin sinatzen duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoa. Guztia argi irakurtzeko moduan adierazi beharko da. Gutun-azalak lizitatzailerak edo haren ordezkariak izenpetuta egon beharko dira, nahitaez. Enpresa batzuek aldi baterako enpresa-elkartean elkarturik lizitatzen badute, enpresa horiek guztiek beharko dituzte gutun-azalak sinatu.

Dokumentazioa postaz bidaliz gero, lizitatzailerak postetxean bertan egiaztatu beharko du dokumentazioa bidali dueneko eguna, eta posta bidez bidali duela Kontratazio Organoari jakinarazi azaleko orriaren 31.1 puntuan aipatutako bideetakoaren bat erabiliz. Bi egitekoak, dokumentazioa bidaltzea eta kontratazio-organoari jakinaraztea bidali izana, iragarkiak ezarritako aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua baino lehen egin beharko dira.

Bi baldintzak bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko baldin eta aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua igarotakoan jasotzen bada. Egun horretatik hamar egun natural igaro badira dokumentazioa jaso gabe, inola ere ez da onartua izango.

Jakinarazte hori kontratazio-organoari posta elektronikoz eginez gero, baliorik izango baldin badu, derrigorrezkoa da argi jasota egotea bai bidali izana bai jaso izana, bai datak bai komunikazioetako eduki osoa, eta ondo identifikaturik egotea zein diren bai bidaltzailea bai jasotzailea. Halakoetan, kopia bat inprimatu, eta erregistratu egin beharko da. Gero, espedienteari erantsi beharko zaio.

### **7.3.- A GUTUN-AZALA PROPOSAMEN EKONOMIKOA, BALORATU BEHARREKO ESLEITZE-IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA FORMULA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOAREKIN.**

Orri bereizi batean gutun-azalaren barruan dauden guztien zerrenda ekarriko du, zenbakiz azalduta, eta, gainera, ondoko dokumentuak:





7.3.1.- Proposamen ekonomikoa.- Proposamen ekonomiko bakarra aurkeztuko da lizitatzen duenak edo eta haren ordezkariak sinaturik (aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez lizitatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartearen bidez lizitatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute). Proposamen ekonomiko hori agiri honetako I. eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera idatzi beharko da. Halaber, eskainitako prezioaren barruan kontzeptu guztiak sartuko dira, are zeinahi zerga-sistematako zerga, gastu, tasa eta ariel guztiak, bai BEZa, eskubideak, ordaindu beharreko gastu-mota guztiak, garraio- eta entrega-gastuak eta, kasua hori bada, instalatze-gastuak, eta ondasunak eman eta onartu arteko beharrezko aseguru, mugazerga, lizentzia eta baimenak, eta baita kontratistaren irabaziak ere.

Agiriaren azaleko orrian barianteak aurkeztea baimentzen denean, oinarriari buruzko proposamen ekonomikoaz gain, gutun-azal horren barruan proposamen ekonomiko bat ere sartu liteke lizitatuzaileak formulatutako bariante bakoitzeko. Bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa ere I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera egingo da eta aurreko lerrokadan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

Aleko prezioak eta beste erlazio batzuk.- Proposamen ekonomikoaren eredian eta batera doan eranskinean hala jarriz gero, ondasunen aleko prezioak ere sartu beharko dira, edo eta esaniko eranskinak kasuan-kasuan eskatutako beharrezko erlazioa.

7.3.2.- Ondasunen ezaugarriak argi eta labur agertzen dituen azalpena, marka, mota eta modeloa zehaztuta.

Eskaintza hobeto ezagutzeko, deskripzio-planoak, eskemak eta argigarri den beste edozein informazio sartu ahal izango da azalpen horretan. Kontratazio honi dagokionez, kontsultatzeko material lagungarritzat joko dira eskaintzen diren ekipo edo materialei buruzko liburuxkak.

7.3.3.- Azaleko orriko 34. puntuan jarri eta formulen bidez baloratzeko moduko esleitze-irizpideak baloratzeko dokumentuak.

Gutun-azal honen barruan azaleko orriko 35. puntuak eskatutako dokumentazioa sartuko da.

Jarritako esleitze-irizpideen artean «beste hobekuntza batzuk kontzeptua ageri baldin bada, hau da, esleipena egiteko bestelako irizpideetan xedatutako eta sartu gabeko betebeharrei gehitutako prestazioak», ondokoa hartuko da kontuan:





Aipatutako hobekuntzek ez dute gehituko kontratuaren prezioa, agiri honetako II. eranskineko ereduaren arabera eskainiko dira, eta kontratuaren parte izango dira Eusko Legebiltzarrak berariaz onesten baldin baditu.

Hobekuntza horiek, kontzeptuaren enuntziatuan jasotako ezaugarriekin, libreki eskaini ahal izango dira salbu eta azaleko orriko 34.1 puntuak muga eta baldintza zehatzak ezartzen baditu, kasu horretan muga eta baldintza zehatz horiek errespetatzen ez dituzten hobekuntzak ez baitira aintzat hartuko.

Nolanahi ere, eskainitako hobekuntzetako bakoitza beregainekotzat jotzen da; beraz, kontratazio-organoak aukeran izango du kontratuaren barruan hobekuntzetako bat, batzuk edo eta bat ere ez sartzea.

7.3.4.- Agiri honetako azaleko orriko 1.6 puntuak baimentzen duenean, barianteak aurkeztu nahi dituzten lizitatuak, proposamen ekonomikoarekin batera, aurkeztutako barianteei buruzko dokumentuak ere sartu beharko dituzte gutun-azal honetan.

7.3.5.- Balorazio faseak. Azaleko orriko 33.4 puntuak esleitze-irizpideak baloratzeko fase bat baino gehiago jasotzen baldin baditu, A gutun-azalean bakar-bakarrak oinarritutako proposamen ekonomikoa sartuko da, eta kasua hori bada bariantei dagozkienak, bai eta, kasua hori bada, I. eranskinak dakarren ereduak exijituriko aleko prezioak edo eta beste erlazio batzuk ere. Gainera, jarritako balorazio-fase adina gutun-azal aurkeztuko dira (prezioari dagokiona izan ezik). Gutun-azal horietako bakoitzean balorazio-fase bati dagokion dokumentazioa sartuko da. Gutun-azal bakoitzak dagokion balorazio-fasea identifikatuko du bai azaleko orriko 33.4an izendatutako balorazio-fasearen zenbakia bai agiri honetako 7.2 klausulan zehaztutako gainerako datuak aipatuz.

7.3.6.- Beharrezkoa irudituz gero, enpresak azaldu ahal izango du, V. eranskinak dakarren ereduari jarraituz, gutun-azal honetan sartutako eskaintzaren informazio eta alderdietatik zein jotzen dituen isilpekotzat sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik. Hala ere, egindako proposamen ekonomikoa inoiz ez da isilpekoa izango.

#### **7.4.- B GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA, BAI ETA GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKOA ERE.**

Ondotik azaltzen diren dokumentuak izango ditu. Beti ere, beste orri batean, haien edukiaren zerrenda bat ere jaso beharko du, zenbakiz enuntziatua.





7.4.1 Norberaren izenean edo besteren ahalorde modura izanik proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiri nazionala.

7.4.2.- Lizitazailea pertsona juridikoa bada, Merkataritzako Erregistroan harturiko eraketa-eskiturak edo aldaketen eskiturak. Agiriok aurkeztu beharko dira baldin eta merkataritzako legeek Merkataritza Erregistroan izena emanda egoteko agintzen badute. Hala ez bada, sorrerako eskitura edo dokumentua, aldaketen dokumentua, edo estatutuak edo sorrerako egintzaren berri ematen duen dokumentua aurkeztu beharko da; dena delako dokumentu horretan jarduerak zein arau bete behar dituen egongo da zehaztuta, eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialekoak izan beharko dute.

Enpresaburuek egiaztatu egin beharko dute kontratuak xede duen jarduera edo prestazioa egiteko, kasua hori bada, eskatu beharreko enpresa- edo lanbide-mailako gaitzea.

7.4.3.- Lizitazailea ez baldin bada bere izenean ari, edo sozietate edo pertsona juridikoren bat baldin bada, ahalordetzea aurkeztu beharko du, ordezkatzeko duen sozietatearen edo entitatearen ordezkari agertzeko adinakoa. Ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan egon beharko du behar bezala inskribatuta. Merkataritza Erregistroko Arautegiko 94.1 artikuluan xedaturikoaren arabera, ahalordetzea hori egintza jakin baterako bada, ez du Merkataritza Erregistroan jasota egon beharrik.

7.4.4.- Agiri bat, berariaz aipatuz kontratu zehatzaren erreferentzia, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 49. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere ez diela eragiten egiaztatzeko. Egiaztapen hori lekukotasun judizial edo administrazio-egiaztagiri bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritza eskudunak ezin baldin badu dokumentu hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (IV. eranskina), administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emana.

Erantzukizunpeko adierazpen horretan, lizitazaileak berariaz aipatu beharko du beteak dituela indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak izatearen egiaztapen hori, hurrengo lerrokadan aipatzen den eran egin beharko dena, kontratuaren esleipendun izango den enpresari kontratua behin behineko esleitzearekin batera exijituko da, eta gehienez ere 5 egun baliodun emango zaie horretarako.

7.4.5.- Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda duten enpresa lizitazaileek aurkeztu beharko dute kontratatzeko gaitasuna dutela egiaztatzen duen indarreko agiriaren kopia (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari



buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du delako erregistroa). Egiaztagiri hori, Erregistroko legelari arduradunak eman beharko du. Horrela eginda, lizitatzailleek ez dute zertan aurkeztu eta egiaztatu 7.4.1, 7.4.2., 7.4.3. eta 7.4.4. puntuetan aipatzen diren dokumentuak eta inguruabarrak.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren egiaztagiria aurkeztuagatik, 7.4.7 klausulan eta 7.4.8 klausulan aurreikusitako dokumentuak ere aurkeztu beharko dituzte, baita 7.4.6 puntuak aipatutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja emanda ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

Aurreko lerrokadetan jasotako balio bera eta ondorio berak eman beharko zaizkio Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeari.

7.4.6.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, ekitaldi honetako alta, edo azken ordainagiria, kontratuaren xedea adierazten duen epigrafean, betiere enpresak zerga horrekin zerikusia duten jarduerak egiten baditu, edo aurkezte-datan burutzen ari diren jarduerari dagokienez, jarduera horiek burutzen dituzten lurralde-eremuan burutzeko ahalmena ematen diena. Altaz edo azken orainagiriaz gain, esaniko zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko da.

7.4.7.- Kaudimenari buruzko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa edo harekin batera aurkeztu beharrekoa:

- a) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen teknikoari buruzko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, agiri honetako azaleko orriko 31. puntu horretan xedatzen den arabera.
- b) Azaleko orriko 32.2 puntuak aipatutako III. eranskinak exijitzen baldin badu bitarteko pertsonal eta materialak atxikitzeko konpromisoa, LCSPeko 53. artikuluaaren bigarren paragrafoan aurreikusia, lizitatzailleak sinaturik aurkeztu beharko du baliabideak atxikitzeko konpromiso hori zeinak, gutxienez, III. eranskinak dakartzan baliabide pertsonal eta materialak jasoko dituen.
- c) Agiri honetako 8.4 klausulak jasotako esleitze-lehentasanak aplikatzeko eta egiaztatzeko, ondoko dokumentuak ekarri beharko dira:





1. Esaniko klausulako a) letran aipatutako lehentasunerako, Gizarte Segurantzako TC2 dokumentua –enpresa osatzen duen pertsonala egiaztatzen duena– eta hautagaiak sinatutako adierazpena aditzera emanaz zenbat langilek duten 100ko 33 edo gehiagoko ahalmen-urritasun ehunekoak, NANeko zenbakiak ere azaltzen dituenak.

2. b) letran aipatutako lehentasunerako, lizitatzaillearen konpromiso formala bere lanpostuen % 30 gutxienez LCSPeko seigarren xedapen gehigarriak bildutako kolektiboetako pertsonekin kontratatzeko, eta enplegua gehitzeko eta enplegu horren kalitatea hobetzeko lanaren merkaturan hartu beharreko presako neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarriak dioena betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

3. c) letran aipatutako lehentasunerako, entitatea Bidezko Merkataritzakotzat aitortua dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. d) letran aipatutako lehentasunerako, dagokion Erregistro Ofizialean izena emanda agertzea.

Eta orokortasunez, gainera, lege horiek lehentasunaren aplikaziorako ezarritako baldintzak betetzen dituelako dokumentazio egiaztagarria.

7.4.8.- Azaleko orriko 17.1 puntuak hala eskatzen duelarik, lizitatzailleak behin-behineko bermea utzi beharko du, ezingo dena izan kontratuaren aurrekontuaren % 3 baino gehiago. Bermea esku-dirutan edo Zor Publikoaren balioetan osatu ahal izango da. Berme hori, bestalde, banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal bidez ere osatu ahal izango da, behar bezala baimendutako erakundeak baldin badira. Baita kauzio-aseguru baten kontratu bidez ere, baldin eta aseguru hori Espainian kauzioaren arloan jarduteko baimena duen aseguru-etxe batek emandakoa bada. Dirua, tituluak, ziurtagiriak, bermea edo kauzioko aseguruaren kontratuaren poliza Eusko Legebiltzarraren Diruzaintzan jarriko dira. Behin betiko bermearen ordez, Eusko Legebiltzarreko Diruzaintzak emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, eta ziurtagiri horretan hau adierazi beharko da: berme orokorra badagoela, berme hori nahikoa dela eta osatu beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela.





7.4.9.- Beharrezkoa irudituz gero, enpresak azaldu ahal izango du, V. eranskinak dakarren ereduari jarraituz, gutun-azal honetan sartutako eskaintzaren informazio eta alderdietatik zein jotzen dituen isilpekotzat sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik.

7.4.10.- Baldin eta hainbat enpresa aldi baterako enpresa-elkarte bat eratuta aurkezten badira lizitaziora, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du baduela jarduteko gaitasuna eta baduela kaudimena, aurreko klausuletan jarritakoari jarraituz, hau da, B gutun-azalari dagokion dokumentazioa kide guztiguztiek aurkeztu beharko dute, salbu eta behin-behineko bermea zeina enpresa horietako batek edo batzuek osatu ahal izango baitute, betiere guztira agiri honetako azaleko orriko 17. puntuan eskatzen den kopurura iristen bada eta aldi baterako elkarte osatzen duten enpresa guztiei solidarioki bermatzen bazaie.

Aldi baterako elkarte bidez lizitatzen dutenek proposamen-idazki bat ere aurkeztu beharko dute non adieraziko baitira elkarte hori sinatzen duten enpresen izenak eta egoera, nola parte hartzen duen bakoitzak eta zer pertsona fisiko izendatzen duten ordezkari edo ahalorde. Ordezkari edo ahalorde horrek bakarra izan beharko du eta behar besteko boterea beharko du kontratutik sortutako eskubideak gauzatu eta betebeharrak bete ahal izateko. Dena den, era berean, botere mankomunatuak ere izan litezke, kopuru handiak eskuratu edo ordaindu behar direnetarako. Esleipena eskuratuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki osatuko dutela ere adierazi beharko da. Elkarteko enpresa bakoitzeko ordezkariak izenpetu beharko dute dokumentu hori. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen baldin bazaio, orduan bakarrik egin beharko da elkarte eratzeko eskritura publikoa.

7.5.- C GUTUN-AZALA: BALIO IRITZIAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. Gutun-azal honetan azaleko orriko 34. paragrafoan aipatutako dokumentazioa aurkeztuko da, balio-iritziaren bidez baloratu beharreko irizpideak baloratzekoa.

7.6.-ESKAINITAKO EREDUAK AZTERTZEA ETA DOKUMENTAZIOA EGIAZTATZEA  
Eskaintzen diren modelo guztiak aztertu ahal izango dira, horrela ebazten badu Eusko Legebiltzarrak. Lizitatuzaileek esango zaien egoitzara eramateko konpromisoa hartuko dute.





Eusko Legebiltzarrak egiaztatu ahal izango du, bai kontratua esleitu aurretik bai ondoren bai kontratua indarrean dagoela ere, gutun-azaletan sartutako dokumentuak egiazkoak direnez. Enpresak emandako datuak eta zehaztasunak gezurrezkoak badira, hori kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, kasua hori bada, enpresa lizitatzailari egozteko moduko hutsegitea izateagatik. Horrek behin-behineko bermea galtzea ekarriko du, edo, kasua hori bada, berme horren adinako kalte-ordaina ordaindu beharra bermerik jarri ez bada edo jartzeko exijitzen ez bada agiriaren azaleko orriko 17. puntuari. Gainera, eragindako kalte eta galerak bermetzat jarritako kopuruaz gorakoak badira, Eusko Legebiltzarrari bermeaz gorako alde hori ere ordaindu beharko zaio.

#### 7.7.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AZALPENAK:

7.7.1.- Lizitatzailak eskatzen diren dokumentuen jatorrizkoak edo haien kopiak aurkeztu ahal izango ditu –Eusko Legebiltzarrak edo notarioak behar bezala konpultsatuta–, behin-behineko bermea izan ezik.

7.7.2.- Diruzaintzan ez da behin-behineko bermerik jarri beharko berme hori abal baten bidez edo kaudizioko aseguru-kontratuaren bidez egin bada. Horrelakoetan, kontratazioa egin duen organoan jarriko da berme hori.

7.7.3.- Esleitzearen kontrako errekurtsioak aurkezteko epea amaitu eta ez baldin badu inork batere aurkeztu, proposamenekin batera doazen dokumentuak lizitatu dutenen eskura geratuko dira.

Hala ere, behin betiko esleipena emanda hiru hilabeteko epea igaro ostean, Eusko Legebiltzarrak erabaki ahal izango du lizitatu dutenek aurkeztutako dokumentuak desagitea, baldin eta lizitatzailak ez badituzte dokumentazio hori jaso.

7.7.4.- Espainiakoak ez baina Europar Batasunekoak diren enpresek nahiz atzerriko gainerako enpresek B gutun-azalean aurkeztu beharreko dokumentuei dagokienez, klausula-agiri honetako VI. eranskinean esaten dena bete beharko da.

7.7.5.- Aurkeztutako dokumentazioak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean (euskaraz edo gaztelaniaz) idatzita beharko du egon. Beste hizkuntza batean idatzita baldin badago, dagokion itzulpen ofiziala ere aurkeztu beharko da.





### III. LIZITAZIOAREN ETA ESLEIPENAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

#### 8. Lizitazioaren eta esleipenaren berariazko klausulak

8.1. B gutun-azala irekitzea eta kalifikatzea; orobat C gutun-azala, balorazio-irizpide bat baino gehiago direnean

Kontratazioko mahaiak, aldez aurretik, B gutun-azalaren edukia aztertuko du, eta, lehenengo eta behin, garaiz eta behar bezala lizitatu dutenek aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.

Kontratazio-mahaiak, dokumentu horietan, konpontzeko moduko akatsik edo hutsik ikusten badu, lizitatu dutenei jakinaraziko die, ahoz. Horrez gainera, aipatutako organo kolegiatuak jendaurrean jakinarazi beharko ditu akats edo huts horiek, iragarki bidez, eta lizitatzailerei epe bat emango zaie –ez hiru egun baliodun baino gehiago–, akats edo hutsak kontratazio-mahaiaren beraren aurrean zuzentzeko edo betetzeko.

Aurreko lerrokadan aipatutako zuzenketatik aparte, enpresaburuari argitasunak eskatu ahal izango zaizkio aurkeztutako ziurtagiri edo dokumentuei buruz, edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko geldegin, gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak egiaztatze aldera. Eginkizun hori bost eguneko epean bete beharko du, eta dokumentuok ezingo dira aurkeztu hurrengo lerrokadan aipatutako onarpen-deklarazioaren ondoren.

Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, halakorik badago, akatsak edo hutsak zuzenduta, kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein enpresak betetzen dituen azaleko orriko 32. puntuan finkatutako gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak eta berariaz ebatziko du zein izan diren lizitaziora onartuak eta zein ez, bai eta hauek ez onartzearen arrazoiak ere.

Esleipenareko oinarriak irizpide objektibo batzuk direnean, kontratazio-mahaiak, B gutun-azala kalifikatu ondoren, C gutun-azala irekiko du eta azaleko orriko 34. puntuan eskatutako dokumentu guztiak hartan dauden aztertuko du. Ondoren kontratazioa sustatzen duen zuzendaritzara bidaliko du, esleipen-irizpideei dagokien dokumentazioa, hango zerbitzu teknikoek txosten teknikoa egin dezaten eskaintzei buruz, non aztertuko eta baloratuko dituzten aipatutako esleipen-irizpideak.





## 8.2. A gutun-azalean sartutako proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea

Kontratazio-mahaiak, lizitazio-iragarkian zehaztutako tokian, egunean eta orduan, ekitaldi publikoan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 83. artikuluan adierazitakoari lotuz iragarriko du zenbat proposamen jaso diren eta zein den lizitatzaileren izena. Ekitaldi berean jakinaraziko du B gutun-azaleko dokumentuen kalifikazioaren emaitza, onartutako proposamenak eta onartu ez direnak adierazita, bai eta hauek ez onartzeko arrazoiak ere. Ondoren, onartutako eskaintzetako proposamen ekonomikoak irekiko dira, A gutun-azaletik hartuta, eta haiek irakurriko.

Baldin eta azaleko orriko 33.4 puntuak esleipen-irizpideen balorazio-fase bat baino gehiago aurreikusten badu, kasu horretan, proposamen ekonomikoa daukan gutun-azala jendaurrean ireki baino lehen, fase desberdinei dagokien dokumentazioa irekiko du kontratazio-mahaiak 33.4 puntu horretan finkatutako ordenan, salbu eta proposamen ekonomikoaren dokumentazioa. Behar diren txosten teknikoak egin ondoren, erabakiko du onartutako proposamenetatik zein pasatzen den hurrengo fasera eta zein ez, bai eta hauek ez pasatzeko arrazoia ere. Proposamen edo eskaintza ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoan, eta proposamen edo eskaintza horiek ireki baino lehen, lizitatzailerei jakinaraziko zaie zein izan diren lizitaziora onartutako enpresen eskaintza teknikoen balorazioak.

### 8.2.1. Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

- a) Eusko Legebiltzarrak eskaintza aztertzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo marratzeak direla eta.
- b) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- c) Lizitazioko aurrekontua gainditzen dutenak.
- d) I. eranskinean ezarritako proposamen-eredua modu nabarmenean aldatzen dutenak.
- e) Proposamenaren zenbatekoan ageriko akatsa dutenak.
- f) Enpresariaren edo enpresa sozialeko ordezkariaren sinadurarik ez daukatena.
- g) Lizitatzailiak aitortzen badu bideragarri ez izateko adinako akatsa edo funtsgabatasuna dutela.

8.2.2. Esleipen-irizpide bakarra baino ez dagoenean, kontratazio-mahaiak, ekitaldi berean, esleipen-proposamena egingo du preziorik baxuena egiten duen eskaintzaren alde, eta bertaratu diren lizitatzailiak gonbidatuko ditu adieraz ditzatela nahi dituzten ohar edo erreserbak. Ohar edo erreserba horiek idatziz adierazi





beharko dituzte, ekitaldia egin eta ondorengo bi egun baliiodunen barruan gehienez ere, eta beren idazkiak Eusko Legebiltzarreko Mahaiara zuzendu. Mahaiak, kontratazio-mahaiaren txostena aztertu ondoren, ebatziko du kontratuaren esleipenaren prozedura, aurkeztutako erreklamazioari buruz ere bere iritzia emanez.

### 8.3. Txosten teknikoak

Esleipenareko oinarriak zenbait irizpide objektibo direnean, kontratazio-mahaiak, proposamen ekonomikoak irekita, egiaztatuko du ea azaleko orriko 34. puntuan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztuta dauden. Ondoren, kontratazioa sustatzen duen zuzendaritzara bidaliko ditu esleipen-irizpideei dagokien dokumentazioa eta, hala badagokio, onartutako enpresen aldaerak, hartan zerbitzu teknikoek txosten teknikoa egin dezaten eskaintzei buruz, non aipatutako esleipen-irizpideak aztertuko eta baloratuko dituzten. Irizpideak besterik gabe formulak aplikatuta kuantifikatu daitezkeenean, kasu horretan, eskaintzen balorazioari dagokionez, bestela neurtu beharreko irizpideen aplikazioa egingo da lehenengo, eta agiri bidez jasota utziko da balorazio hori. Txosten hori kontratazio-mahaiari bidali beharko zaio, hark proposamenak, aktak, txosten teknikoa, bere esleipen-proposamena eta bere oharrak Eusko Legebiltzarrari helarazi diezazkion. Kontratazio-mahaiak, bere proposamena egin baino lehen, egoki iriztitako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu kontratazioaren esleipenari dagokionez.

Azaleko orrian nagusitasuna eman baldin bazaie balio-juzku baten arabera neurtu beharreko irizpideei, adituen lantalde bat eratu beharko da eskaintzen ebaluazioa egiteko, edo ebaluazio hori klausula-agiri honetako azaleko orriko puntuan identifikatutako erakunde tekniko espezializatuari gomendatuko zaio.

Klausula-agiriko azaleko orrian balorazio-fase ezbedinak ezarri badira, proposamen ekonomikoa jendaurrean ireki baino lehen egingo da eskaintzako alderdi teknikoen balorazioa.

Azaleko orriko 35. paragrafoan aurreikusita dagoenean, enkante elektronikoa egin ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 132. artikulua arabera, prezio-hobekuntzak edo eskaintzen zenbait elemenduri buruzko balio berriak aurkezteko, eskaintzak orokorrean hobetze aldera. Enkantea prozesu iteratibo gisa eratuko da, eta eskaintzen lehenengo ebaluazio oso bat egin ondoren gauzatuko.





#### 8.4. Esleipeneko lehentasunak

Behin eskaintza abantailatuena erabaki ondoren, eta behin-behineko esleipen-proposamena egin aurretik, esleipeneko lehentasunak aplikatuko ditu kontratazio-mahaiak, betiere honako baldintzak hauek emanez gero:

Esleipeneko lehentasunak. Baldin eta lizitatzailak aurkeztu badu klausula-agiri honetako 7.4.7 klausulan aipatutako dokumentazioa, esleipena egiteko orduan lehentasuna izango dute honako enpresa hauek, betiere esleipeneko irizpide objektiboen ikuspuntutik abantailatuena den proposamena berdinduz gero:

- a) Kaudimen teknika egiaztatzeko unean langile baliourrituei dagokienez bere plantillan portzentaje handiena duena, baldin eta portzentaje hori plantillaren % 2 baino txikiagoa ez bada.
- b) Gizarte-bazterketa duten pertsonak lanean sustatzea eta lanean sartzea helburu espezifikoak duten enpresak, Laneko Merkatua Erreformatzeko Neurri Urgenteei buruzko uztailaren 9ko 12/2007 Legearen bideratzigarren xedapen gehigarrian erregulatuta daudenak.
- c) Baldin eta bidezko merkataritzazko alternatiba duten produktuak badira kontratuen xede, bidezko merkataritzako erakunde gisa errekonozitutako antolakundeak.
- d) Baldin eta kontratuak izaera sozial edo asistentzialeko prestazioei buruz badira, aurkeztutako enpresetan irabazi asmorik gabeak direnak.

Lehentasuna aplikatzeko orduan, ezaugarri bat baino gehiago biltzen duen enpresaren proposamenari emango zaio aurrea. Berdinketarik gertatuz gero, halakoetan, lehiaketaren kasuan, lehentasun-ordenaren arabera esleipen-irizpideetako batean puntuazio hobea duen eskaintzaren alde ebatziko da.

Aldi bateko enpresa-batasunen kasuan, lizitatzailak bakoitzak batasunean duen portzentajearen neurrian aplikatuko dira lehentasunak.

#### 8.5. Kontratuaren behin-behineko esleipen-proposamena

Azkenik, proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, eta aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dizkio proposamen horiek –ordena beherakorreen sailkatuta–, aktak eta aurkeztutako gainerako agiri teknikoak, eta orobat behin-behineko esleipen-proposamena eta egoki iritzitako oharra. Esleipen-proposamena baino lehen, eskaintza-egileen eskatu ahal izango zaie idatziz adieraz ditzatela





eskaintzetako alderdiren bat ulertzeko beharrezko diren argibideak. Inola ere ez da onartuko lizitatzailan eskaintzan adierazitako zehaztasunak aldatzea argibideak emateko prozesu horretan; kontuan hartu ahal izango den informazio bakarra, hain zuzen, hasiera batean proposatutako soluzioaren azterketa erraztekoa izango da.

## **9. Kontratuaren behin-behineko esleipena**

9.1. Kontratazio-mahaiak proposatutako lizitatzailari egingo dio kontratuaren behin-behineko esleipena Eusko Legebiltzarreko Mahaiak.

9.2. Behin-behineko esleipenaren ebazpen motibatua lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie eta aldizkari ofizial batean edo kontratazio-organoaren kontratatzaile-soslaian argitaratu beharko da.

9.3. Behin-behineko esleipena ezingo da behin betikoa izatea erabaki harik eta hamabost egun baliodun igaro arte behin betiko esleipen hori aldizkari ofizial batean edo kontratazio-organoaren kontratatzaile-soslaian argitaratzen den biharamunetik hasita.

9.4. Hamabost eguneko epe horretan, enpresa esleipendunak dokumentazioa aurkeztu beharko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatzeari dagokienez egunean dagoela egiaztatzeko, eta dokumentazioa aurkeztu beharko du, orobat, kontratazio-organoak eskatuta, egiaztatze aldera baduela kontratatzeko gaitasuna eta benetan dauzkala kontratuaren egikaritzera zuzentzeko edo atxikitzeko hitz emandako bitartekoak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 53.2 artikulua araberak. Halaber, eskatzen baldin bada, dagokion bermea ere eratu beharko du.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta edukitzea egiaztatzeko, dagozkien ondasunek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak hartarako egindako ziurtagiri administratiboak aurkeztu beharko dira, edo eskakizun horiek betetzeari buruz Kontratisten Erregistro Ofizialak eginda indarrean dagoen ziurtagiria, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikulua aurreikusitako norainokoa eta eran.

Hala ere, baldin eta enpresak aurkeztu behar ez baditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orikorreko 13. artikulua ("zerga-betebeharrak") eta 14. artikulua ("Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak") aipatzen dituzten adierazpenak edo dokumentuak, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da egoera hori.





9.5. Kontratuaren behin betiko esleipena ezin baldin bazaio behin-behineko esleipena egin zaion enpresari egin, ez dituelako betetzen hartarako beharrezko baldintzak, orduan, deialdi berri bat egin baino lehen, Eusko Legebiltzarrak behin-behineko esleipena egingo ahal izango dio haren hurrengoko enpresari edo enpresei, betiere hori posible izanez gero eta esleipendun berriak bere adostasuna emanez gero. Halako kasuan, hamar egun baliouduneko epea emango zaio aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

9.6. Behin-behineko esleipena ez da egingo baldin eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak oinarritz sendoz uste badu proposamena ezingo dela bete hartan balio anormalak edo neurritz gainekoak sartuta edukitzeagatik.

Halako kasuetan entzuna izateko aukera eman beharko zaio proposamena aurkeztutako enpresari, eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan eta eskaintzaren baldintzak zehaztu ditzan. Prozedura horretan kasuan kasuko zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak uste baldin badu eskaintza ezin dela bete, erabakiko du behin-behineko esleipena egin dadila Eusko Legebiltzarren gogobetetasunez egikaritua izan daitekeen eta anormala edo neurritz gainekotza joa ez den hurrengo proposamenaren alde.

## **10. Kontratuaren behin betiko esleipena**

Kontratuaren behin-behineko esleipena behin betiko bihurtu beharko da 9.3 klausulan adierazitako epea bukatzen den biharamunetik hasita hurrengo hamar egun baliouduneko epean. Hartarako, beharrezkoa izango da proposatutako enpresak aipatutako dokumentazioa aurkeztu izana eta behin betiko bermea eratu izana, halakorik exijitzerik baldin badago. Nolanahi ere, behin-behineko esleipena berrikusi ahal izango da errekurso berezi bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **11. Esleipenak jakinaraztea eta publizitateaz**

Kontratuaren behin betiko esleipena, behin erabakita, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraituz.





Halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138. artikuluan aurreikusita dagoen publizitatea emango zaie esleipenei.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak ahalmena edukiko du kontratuaren esleipenari buruz informazioen bat ez jakinarazteko eta ez argitaratzeko, baldin eta konfidentzialtasun-izaerarik badu.

#### **IV. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

##### **12. Kontratua formalizatu aurreko betebeharrak**

Behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso ondoren, enpresa esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, kontratua formalizatzeko dagoen hamabost egun balioduneko epearen barruan:

12.1. Aldizkari ofizialetako iragarkien gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua. Kontuan izan behar da enpresa esleipendunak ordaindu beharko duela, behin, kontratuen iragarpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

12.2. Baldin eta lanak aldi baterako enpresa-batasun bati esleitzen bazaizkio, batasun horren eraketa egiaztatzen duen dokumentua, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, eta orobat aldi baterako batasunari izendatutako identifikazio fiskaleko kodea.

##### **13. Kontratua formalizatzea**

13.1. Kontratua formalizatzeko dokumentua, hain zuzen, aurreko klausulan aipatutako hamar egun balioduneko epearen barruan emango da, epe hori esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita kontatuta. Dokumentu horrek dokumentu administratibo izaera edukiko du eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 71. artikuluan aipatutakoarekin bat etorriko beharko da.

13.2. Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezin bada kontratua formalizatu goian aipatutako epe horretan, Legebiltzarreko Mahaiak kontratua bertan behera uztea erabaki ahal izango du. Erabaki hori hartu baino lehen, ordea, nahitaez entzun beharko dio enpresa intesatuari esaten duena, eta erabakia hartzerakoan, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Halako erabakia hartzen denean, kendu egingo zaio enpresari behin-behineko bermea, eta eragindako kalte eta galerak ordaintzeko eskatuko zaio.





## V. KONTRATUA EXEKUTATZEA

### 14. Exekuzioa zuzentzea eta ikuskatzea

14.1. Kontratua Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolaren menpean exekutatu da. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak beharrezko jarraibdeak eman ahal izango ditu hitzatutakoa ber bezala betetzen dela begiratzeko.

14.2. Hala ere, esaniko lana kontratuaren zuzendaritzak eraman ahal izango du aurrera. Zuzendariak titulazio egokia eta nahikoa izan beharko du, eta bera izango da, halaber, hitzartutako horniketa behar bezala egiten ote den egiaztatzeko arduraduna.

Bere lana egiteko, hainbat laguntzaile eduki ahal izango ditu agindupean. Pertsona horiek beren titulu profesionalen arabera edo ezagupen berezien arabera egingo dute lana, eta horniketako zuzendaritza osatuko dute.

Kontratua egiten denetik aurrera, Eusko Legebiltzarrak hamabost egun natural izango ditu zein zuzendari izendatu duten jakinarazteko kontratistari. Era berean, zuzendari horrek epe hori bera izango du bere lankideen berri emateko.

Zuzendaria edo laguntzaile-talde hori aldatu behar izanez gero, hori ere kontratistari jakinarazi beharko zaio.

14.3. Kontratuaren zuzendaritza hor badago ere, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Bere eginkizunak izango dira kontratuaren exekuzioa ikuskatzea, eta itundutako prestazioa zuzen burutu dadin bermatzeko beharrezko diren erabakiak hartzea eta aginduak ematea, hori guztia ematen zaizkion ahalmenen barruan.

### 15. Kontratua exekutatzeari buruzko arau orokorrak

15.1. Entrega egiteko denbora eta epea. Enpresa kontratistak klausulen azaleko orriko 1. puntuko ondasunak noiz entregatu behar dituen orri horretako 11. eta 20. puntuetan dago zehaztuta, eta hala egin beharko du derrigor, eta betebeharrak teknikoak eta administrazio-klausulen arabera jokatu gainera.

Alabaina, kontratua exekutatzen ari diren bitartean, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak eskubidea izango du beste entrega-leku bat jartzeko, eta ez azaleko orriko 20. puntuan zehaztutakoa. Dena dela, leku berri hori Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egon beharko da beti.

15.2. Kontratuaren iraupena eta entrega-epiak. Azaleko orriko 11. puntuan dago zehaztuta kontratuak zenbat iraungo duen eta ondasuna edo ondasunak noiz entregatu behar diren. Horniketa sustatu duen erakundeak edo unitateak enpresa kontratistari zerbitzua ematen hasteko agintzen dion egunetik aurrera hasiko dira





zenbatzen epe horiek. Idatziz emango dio, behar bada, agindu hori, edo hala agindu diola jasota uzteko moduko beste edozein erataria, baina ezingo du izan kontratuaren formalizazio-eguna baino lehenago. Berehala izapidetu beharreko deklaraturako espedientei dagokienez, baldin eta azaleko orriko 17.2 puntuko behin betiko bermea osatuta badago orri hauetako 7.4.8 klausulan zehaztuta dagoen eran, kontratua formalizatu gabe ere agindu ahal izango du Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratu hori exekutatzeko.

Enpresa kontratista berandu ibiltzeak ez dakar Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kargu hartu beharra.

15.3. Ondasunak ordezkatzeko. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, esleitutako kontratuaren ondorioz eta kontratu hori exekutatzeko ari diren bitartean, lizitatuaren proposamenetan jasotako prezioetan eskuratu ahal izango ditu, eskaintako modelo eta marken arabera, oinarri teknikoaren orrian eta klausula-orri hauetan zehaztutako eta aurreikusitako hornigaiak.

Alde horretatik, hitzartutako ondasunen ordezkari beste hobeago batzuk ekarri nahi baldin baditu, enpresak hala proposatu ahal izango dio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz beti, eta berdin-berdin hitzartutako baldintzak era batera edo bestera hobetu nahi baditu ere, baina kontratuaren gaiaren prestazioetatik bestelakoak ez diren kasuan.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, hornigaiak kudeatzeko organoaren eta zerbitzu juridikoaren txostena aztertu ondoren, erabakitzen badu komenigarria dela egindako proposamen berri hori onartzea, hartarako baimena eman ahal izango du ebatzen bidez, espedientearen hori ondo jasota utziz. Nolanahi ere, enpresak ez du inolako ordain berezirik jasotzeko eskubiderik izango, baizik eta kontratuan hitzartutako prezioa ordaindua izatea besterik ez.

15.4. Hurrenez hurrenko entregaren zenbatekoa. Baldin eta hainbat ondasun hurrenez hurren entregatzea bada egin beharreko horniketa, Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren beharren arabera izango da ondasun horien kopurua, eta, ondorioz, ez da egongo gutxienezko unitate-kopuru bat erosi beharrik.

15.5. Instalazioa. Baldin eta produktuak edo ondasunak higituak badira eta instalatu, funtzionamenduan jarri edo martxan ipini beharra badaukate, enpresa kontratista behartuta egongo da lan horiek egitera, oinarri teknikoaren klausula-agirian jartzen duen bezala, eta eskaini zuen prezioaren barruan sartuta egongo da lan horien prezioa ere.





15.6. Ondasunak jasotzea eta jarraibideak Eusko Legebiltzarrak hornigaia jasotzen duenean, orduan joko da egindakotzat entrega, kontratuko baldintzen arabera. Nolanahi ere, jasotze horrek, erabatekoa edo zatikakoa izan, Eusko Legebiltzarraren egintza formal eta positiboa eskatuko du, eta egintza hori jasotze-aktaren bidez dokumentatuko da, zeina zuzendaritza eskudunak egingo baitu. Jasotze-egintza entregaren ondoren izaten baldin bada, Eusko Legebiltzarra arduratuko da ondasunak zaintzeaz bataren eta bestearen arteko denboran.

Kontratua nola bete, hitzartutakoa nola jaso, entrega hori nola izapidetu, kitapena nola egin edo ordainketa nola egin argitze aldera, horniketa kontratatzeo eskudunak diren organoek, beren eskumenen eremuan, egokiak iruditzen zaizkien jarraibideak eman ahal izango dituzte. Jarraibide horiek, ordea, ezingo dira kontraesanean egon sektore puboikoko kontratuak eregulatzeko legerian eta klausula-agiri honetan xedatutakoarekin.

15.7. Eusko Legebiltzarra jasotzen berandutzea. Baldin eta Eusko Legebiltzarrak, arrazoi justifikaturik gabe, berandu jasotzen badu horniketa, enpresa kontratistak salatu egin beharko du berandutze hori, ondorioz izatea nahi baldin badu. Halakoetan, Eusko Legebiltzarrak izango du ondasunak zaintzeko ardura entregaren eta jasotzearen arteko denboran.

15.8. Galerak edo kalteak entrega egin aurretik. Baldin eta, hornigaia edozein delarik ere, Eusko Legebiltzarraren esku utzi aurretik, enpresa esleipendunari ondasunak galdu edo hondatu egiten bazaizkio edo galerarik sortzen badiote, enpresa esleipendunak ez du izango kalteordainetarako eskubiderik, salbu eta ondasunon jatzeari dagokienez Eusko Legebiltzarrak berandutzea izan duenean.

15.9. Entrega, garraio eta instalazioko gastuak. Hornigaiak hitzartutako tokian entregatzeko, haraino garraiatzeko eta han instalatzeko gastuak enpresa esleipendunak berak ordaindu beharko ditu, eta eskaintzaren barruan sartuta egon beharko dute, agiri honetako 7.3.1 klausulan jartzen duen moduan.

## **16. Enpresa kontratistaren beste betebeharrak**

16.1. Enpresa kontratistak lan arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bai eta Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak ere, eta orobat kontratuaren exekuzioan zehar indarrean sartzen direnak. Betebeharrak horiek betetzen ez baditu, horrek ez dakar inolako erantzukizunik Eusko Legebiltzarrarentzat.





16.2. Horniketa exekutatzeko lanetan ondorioz kalterik edo galerarik eraginez gero inori, enpresa kontratistak ordaindu beharko ditu kalte-ordainak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko 198. artikuluan xedaturikoaren arabera.

16.3. Beharrezko lizentzia eta administrazio-baimenak lortzea enpresa esleipendunaren kontura izango da beti, baita ondasunak inportatzeko bada ere, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

16.4. Horniketa-kontratu batzuetan baliteke Eusko Legebiltzarrak jartzea beharrezko material guztiak edo batzuk. Halakoetan, enpresa esleipendunaren zaintzapean utzitakotzat hartuko dira, eta hark zaindu eta atzera itzuli beharko ditu. Ondasun horiek zaintzeari eta galtzeari dagokionez, Kode Zibilean, Merkataritzako Kodean eta Zigor Kodean xedaturik dagoena bete beharko da.

16.5. Kontratua exekutatzeko hizkuntza-baldintzak. Kontratuaren ondorioz Legebiltzarreko Administrazioarekin izan beharreko harremanetan, euskara erabiliko da kontratuaren exekuzioaren ondorioetarako, baldin eta enpresa kontratistaren egoera soziolinguistikoak horretarako aukera ematen badu. Horretarako:

a) Legebiltzarreko Administrazioarekiko harremana euskaraz eduki ahal izateko, euskaraz behar adinako gaitasun linguistikoa duten langilean izendatuko ditu enpresa kontratistak kontratua exekutatzeko eginkizunetarako. Hortaz, euskaraz egingo dira, batik bat, kontratuaren exekuziorako izendatutako langileen eta Legebiltzarreko Administrazioaren arteko ahozko komunikazioak.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta jasotzaileak euskara aukeratzen badute.

16.6. Ingurumen- eta gizarte-baldintza bereziak kontratuaren exekuzioan. Azaleko orriko 30. puntuan hala aurreikusi baldin bada, puntu horretan zehaztutako gizarte- eta ingurumen-baldintza bereziak aplikatuko ditu kontratista esleipendunak kontratuaren exekuzioan.

16.7. Kontratuak izaera konfidentziala edukiko du. Beraz, enpresa hornitzaileak ezin izango du beretzat erabili edo hirugarren bati eman kontratatutako prestazioetako datu edo informazioarik Legebiltzarreko Administrazioaren idatzizko baimenik gabe. Ondorioz, enpresa behartuta egongo da informazioaren eta egindako lanaren izaera konfidentzial eta erreserbatu hori godetze aldera bere esku dauden neurri guztiak jartzera.





## 17. Saneamendu-betebeharra

17.1. Enpresa kontratistak entregatu beharreko ondasunek halako kontuetarako Estatuko Administrazioak, erkidegokoak edo tokikoak emandako arau orokor guztiak bete behar dituzte, ahaztu gabe, gainera, kasuan kasuko oinarri teknikoen klausula-agirian ezarri ahal diren arau bereziak.

17.2. Hirugarren batek inolako erreklamaziorik egiten bada hornigaien jabetza intelektuala, industrial edo merkataritzakoa dela eta, enpresa kontratista izango da erantzulea. Eta erreklamazio horiek inolako kalte edo galerarik sortzen badiote Eusko Legebiltzarrari, horiek eragindako gastu guztiak barne, enpresa kontratistak eman beharko dio ordaina.

Fabrikazio-horniduraren kasuan, jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak, ustiapen ekonomikoa atera dakiekeen neurrian, Eusko Legebiltzarrarenak izango dira, salbu eta azaleko orrian edo klausula-agirietan berariaz kontrako aurreikuspenik egiten bada.

17.3. Enpresa kontratista izango da ondasunen kalitatearen eta, halakorik badago, akatsen erantzulea. Antzematen diren akatsak Eusko Legebiltzarraren agindu batek edo Eusko legebiltzarrak ezarritako baldintzek eragin badituzte zuzenean, orduan bakarrik geratuko da erantzun beharretik libre.

## 18. Eusko Legebiltzarraren ahalmena

Eusko Legebiltzarrak dena delako produktua nola egiten duten ikuskatzeko eta, hala eskatzen duenean, gai horretaz informazioa jasotzeko ahalmena izango du. Ondorioz, erabili behar dituzten materialei dagokienez azterketak, saiakerak eta probak egin ahal izango ditu bere kasa, edo egiteko agindu, baita kalitatea kontrolatzeko sistemak antolatu ere, eta orobat hitzartutakoa zorrotz bete dadin beharrezkoak iruditzen zaizkion xedapenak eman.





## 19. Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak

19.1. Hornigaiak benetan entregatzen baditu eta administrazioak formalki jasotzen baditu, enpresa esleipendunak eskubidea izango du hornigai horien prezioa ordain dakion, kontratuan jasotako baldintzen arabera.

19.2. Egindako lana ordaindu izana egiaztatzeko, kontratu osoa edo haren zati bat burutu dela egiaztatzen duten dokumentuak erabiliko dira –ordainagiriak, lansarien kontuak, eta abar–, klausula-agiri honen azaleko orrian xedatzen den maiztasunarekin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 200. artikuluan ematen dien izaerarekin.

19.3. Azaleko orriko 14. puntuan hala jartzen badu, eta kontratistak aurretiaz idatziz eskatzen badu, kontrako ordainketak egiaztatu ahal izango dira, kontratua exekutatzeko prestatze-lanen diru-kopuruagatik, lan horiek kontratuaren gaiaren barruan sartuta dauden kasuan. Horretarako, baldintza eta forma batzuk bete beharko dituzte: zerbait fabrikatzea bada hornigai, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 155.etik 157.era arteko artikuluetan zehaztutakoak, eta gainerako kasuetan, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 39. klausulan zehaztutakoak (1972ko martxoaren 8ko Aginduaren bidez onartu zen klausula-agiri hori).

19.4. Azaleko orriko 9.2 puntuan hala aurreikusita baldin badago, kontratuaren gai diren ondasunen antzeko beste batzuk emanaz ordainduko da, zati batean, horniketa.

Azaleko orriko 9.2 puntuan dago zehaztuta entregatu beharreko ondasunen balorazioa, baina inola ere ezingo du gainditu kontratuaren prezio osoaren % 50.

Eusko Legebiltzarreko ondasunen entrega egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 27. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

19.5. Eusko Legebiltzarrak ordainketan bi hilabete baino gehiagoko berandutzea duenean, berandutze-interesak eta kobro-kostuengatik kalte-ordaina ordainduko dizkio enpresa kontratistari, merkataritza-eragiketarako berankortasuna borrokatzeko neurriak zehazten dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako eran.

19.6. Ezin izango da inolako ordainketarik egin, harik eta dagokion kontratua formalizatu arte.





## **20. Kontratua aldatzea eta etetea**

20.1. Behin kontratua sinatuta premia berririk sortuz gero edo ustekaberik gertatuz gero, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak aldatu ahal izango du kontratu hori. Halakoetan, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 202. eta 272. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

20.2. Eusko Legebiltzarrak ezin izango du enpresa kontratistarekin negoziatu kontratuaren gaiaz bestelakoa den prestaziorik. Halakoren bat beharrezkoa dela uste badu, kontratu independente baten gaitzat hartuko dira, eta, hortaz, sektore publikoko kontratuak erregulatzeko legerian aurreikusitako izapideak beteko dira.

20.3. Kontratuan aldaketak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

20.4. Kontratua suntsitzeko arrazoia izango dira honako kasu hauek: kontratuan aldaketak egitea, eta horiek, elkarren segidakoak izan arren, bakarka edo multzoka hartuta, kontratuaren prezio zaharrean –balio erantsiaren gaineko zerga kontuan hartu gabe– % 20ko gorabeherak eragitea bai gorantz bai beherantz, edo kontratuaren beraren funtsa aldaraztea.

20.5. Kontratua eteteari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

## **21. Kontratua lagatzea eta birkontratzea**

21.1. Gai honi dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 209. eta 210. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

21.2. Klausula-agiriaren azaleko orrian birkontratazioa galarazten ez bada, eta zenbait kontraturen berariazko eskakizunak ere bete beharra kendu gabe, enpresa kontratistak, oro har, egiaztatu egin beharko ditu honako zehaztasun hauek:

21.2.1. Kontratuaren zati bat edo batzuk exekutatzeko zein birkontratistarekin egingo duen hitzarmena eta kontratuaren zein zati birkontratatu duen. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 210.2.a artikuluan eta klausula-agiri honetako azaleko orrian xedatutakoa bete beharko da birkontrataterakoan.





21.2.2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 210.5 artikuluan ezarritako baldintza betetzea. Baldintza horren arabera, ezin izango da birkontrataziorik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko gaitasunik gabe utzitako pertsonekin edo lege horretako 49. artikuluko kasuetan daudenekin.

21.2.3. Prezioari dagokionez, prezio hirtartua birkontratastarekin edo hornitzaileekin Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluan zehazten diren epe eta baldintzekin hitzartu beharra betetea.

21.3. Zehaztasun horiek egiaztatze aldera, enpresa esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

21.3.1. Birkontratazioa formalizatu aurreko komunikazio idatzia. Agiri horretan adierazi beharko da zein birkontratastarekin hitzartuko duen kontratuaren zati baten edo batzuen exekuzioa, eta kontratuaren zein zati birkontratatu den.

21.3.2. Komunikazio horri alde biek sinatutako dokumentu baten zirriborroa erantsiko zaio, agiri hori birkontratasta eta hornitzaile bakoitzak sinatzeko. Agirian, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikulua xedatzen duenari jarraituz hitzartu beharko dituzte alde biek ordainketa-epe eta -baldintzak.

21.3.3. Komunikazio bat aipatu baita 21.3.1 puntuan, komunikazio horri honako egiaztapen hauek ere gehituko zaizkio:

- a) Agiri bat, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batek ere –21.2.2 klausulan aipatutako baldintzetan– ez diela eragiten egiaztatzeko. Egiaztapen hori epailearen elkukotasunaren bidez edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Eta agintaritzaren eskudunak ezin badu agiria eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (IV. Eranskina), administrazio-agintaritzaren, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandakoa. Horrelakoetan, birkontratasta pertsona juridikoa bada, adierazpena sinatzen duenak ahalmen-agiria aurkeztu beharko du, enpresa Eusko Legebiltzarraren aurrean ordezkatzeko gaitasuna baduela egiaztatzen duena, eta pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala.
- b) Indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 15. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatu ahal izango da betebeharrak bete izana.





Betebeharrok bete izana egiaztatzeko, egiaztagiri administratiboak aurkeztu beharko dira. Egiaztagiriok, kasuan kasuko ogasunek (Estatuko Ogasunak edo foru-ogasunek, sozietateen gaineko zergan ageri den eragiketa-kopuruaren arabera) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak eman beharko dute. Aldiz, jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, alta-agiria eta, beharrezkoa bada, azkenengo ordainagiria aurkeztu beharko dira.

- c) Kontratatzeko ahalmena egiaztatzeko prozedura baten bidez Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden birkontratistei dagokionez, erregistroko legelari arduradunak emandako egiaztagiri baliadunaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko (Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenak ezartzeari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen du delako erregistroa). Horrela, ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko aurreko 1) eta 2) puntuetan adierazitako dokumentu eta inguruabarrak.

21.4. Birkontratazioa formalizatu baino gutxienez hamabost egun natural lehenago, enpresa esleipendunak 21.3 klausulan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu kontratazio-organoaren aurrean. Birkontratazioa formalizatu ondoren, 21.3.2 klausulan aipatutako dokumentua –alde biera eta jatorrizkoa– aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak kontratazio-organoaren aurrean, behar bezala sinatuta. Enpresa esleipendunak betebehar hori betetzen ez badu, edo ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango du birkontratazio hori egin.

## **VI. Kontratua amaitzea**

### **22. Hornigaiak jasotzea**

22.1. Kontratua betetzat joko da enpresa kontratistak kontratuaren gaia kontratuko baldintzen arabera eta Eusko Legebiltzarrak nahi duen erara burutzen duenean.

22.2. Kontratua bete dela agerian gera dadin, Eusko Legebiltzarrak egintza formal eta posibibo bat egin beharko du prestazioak jasotzeko edo bere adostasuna adierazteko. Hilabeteko epea izango du horretarako, kontratuaren gaia entregatzen edo burutzen denetik hasita, edo, bestela, klausula-agiri honen azaleko orriko 28.1 puntuan zehazten den epea.

22.3. Kontratuan zehaztutako tokian eta egunean entregatu beharko ditu enpresa kontratistak horniketaren gai diren ondasunak, enpresak berak edo, bestela, eskuordetza baimendu bidez. Enpresa kontratistaren berandutzerako, ez da beharrezko izango aurretiaz Eusko Legebiltzarr kargu hartu izana.





22.4. Horniketaren gai diren ondasunak hitzarturiko tokira garraiatzeko eta entregatzeko gastuei dagokienez, enpresak kontratistak ordaindu beharko ditu, non eta ez den besterik erabaki.

22.5. Ondasunak ez badaude jasotzeko moduan, hala zehaztu beharko da jasotze-aktan, eta behar diren aginduak emango zaizkio enpresa kontratistari erreparatutako akatsak konpontzeko edo hitzartutakoari egokitutako beste horniketa bat egiteko.

### **23. Berme-epea**

23.1. Klausula-agiri honen azaleko orriko 28.2 puntuan zehaztuta dagoena izango da berme-epea, eta hornigaiaren jasotze-egintzatik hasita kontatuko da. Baldin eta epe hori Eusko Legebiltzarrak eragozpenik jarri gabe igarotzen bada, azkendutzat joko da kontratistaren erantzukizuna.

23.2. Berme-epeak irauten duen baitartean, enpresa kontratistak eskubidea edukiko du entregatutako ondasunei aplikazioari buruz informatua izateko eta bere iritzia entzunarazteko.

23.3. Berme-epeak irauten duen bitartean egiaztatzen bada entregatutako ondasunek akatsak edo okerrak dituztela, enpresa kontratista behartuta egongo da, Eusko Legebiltzarrak hautatuta, edo desegokiak direnak beste batzuekin ordezkatzera, edo, nahikoa bada, behar diren konponketak egitera.

23.4. Berme-epeak irauten duen bitartean antzematen diren aldaketa-beharrak eta konponketa-beharrak bere kontura egin beharko ditu hornitzaileak, harik eta betebeharrak teknikoaren klausula-agirian jasotako balioak betetzea lortu arte.

23.5. Berme-epeak irauten duen bitartean Eusko Legebiltzarreko Mahaiak uste badu entregatutako ondasunak ez direla baliagarriak lortu nahi zen helbururako, eta hori ondasunetan antzemandako akats edo okerrenetatik dela eta makur horiek enpresa kontratistari egotzi ahal zaizkiola, eta uste badu ondasunok ordezkatzeko edo konpontzeko ez dela nahikoa jarritako helburua betetzeko, kasu horretan, ondasunak ezetsi egin ahal izango ditu epe hori amaitu baino lehen, eta enpresa kontratistaren esku utziko ditu. Halakoetan, Eusko Legebiltzarrak ez du ordaindu beharrik izango, edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordandutako prezioa berreskuratzeko.

23.6. Berme-epea amaitzen bada eta Eusko Legebiltzarreko Mahaiak ez badu formalizatu aurreko paragrafoetan aipatutako eragozpen edo salaketarik, hortik aurrera enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango entregatutako ondasunak direla eta.





## 24. Kontratua kitatzea

Jasotze-aktaren egunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, kontratuaren likidazioa egin eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta, hala badagokio, likidazio horren emaitza ordaindu egin beharko zaio. Likidazioaren emaitza ordaintzerakoan berandutzerik izatea bada, enpresa kontratistak eskubidea edukiko du berandutze-interesak eta kobro-kostuengatik kalte-ordaina jasotzeko, merkataritza-eragiketetako berankortasuna borrokatzeko neurriak zehazten dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako eran.

## 25. Kontratua azkentzea

25.1. Betetzeagatik edo suntsitzeagatik azkentzen da kontratua.

25.2. Kontratua suntsitzeko arrazoiak dira, hain zuzen, klausula-agiri honetan berariaz jasotakoak eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206. eta 275. artikuluetan jasotakoak.

Ondorioz, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da enpresa kontratistak ez betetzea klausula-agiri honetan zehaztuta dagoen nahitaezko betebeharrak.

25.3. Kontratua suntsitzearen ondorioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 208. eta 276. artikuluetan ezarritakoari jarraituz erabakiko dira.

## 26. Bermea itzultzea

Bermealdia amaitu (azaleko orriko 28.2. puntuan dago zehaztuta zein den), kontratua kitatu eta kontratu hori behar bezela beteta, orduan hartuko du bermea itzultzeko edo ezeztatzeak akordioa Eusko Legebiltzarreko Mahaiak..

Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota oraindik ez bada horniketa formalki jaso ez likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio enpresa kontratistari egotzio, orduan, gehiago luzatu gabe, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da. Horretarako, ordea, beharrezkoa izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 88. artikulua aipatzen duen erantzukizun-kasurik ez gertatzea.





## 27. Epeak ez betetzea

27.1. Baldin eta enpresa kontratistak, berari egotzi dakizkion arrazoiengatik, berandutzea izan badu klausula-agiri honen azaleko orriko 11.1 puntuan ezarritako zatikako epeak betetzeari dagokionez, edo epe horiek betetzean berandutzeak modu arrazoitsuan pentsarazten baldin badu ezinezkoa dela guztizko epea betetzea, kasu horretan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak neurri hauetako erabaki ahal izango du, berak nahi duena: edo kontratua suntsitzea eta bermea galtzea, edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196.4 artikuluan ezarritako zigorrak edo, bestela, klausula-agiri honen azaleko orriko 25. puntuan jasota dauden eta legekoen bestelakoak diren zigorrak ezartzea.

27.2. Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du erabakitzeo edo kontratua suntsitzea edo zigor berri batzuk ezarrita kontratuaren exekuzioa jarraitzea.

27.3. Aurreko kasu horiei dagokienez, kontratazio-organoak kontratazioa suntsitzea hautatzen badu, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginekoko 109. artikuluan araututa prozeduraren bidez erabakiko du organo horrek suntsipena.

## VII. ERREKURTSOAK, EUSKO LEGEBILTZARRAREN AHALMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

### 28. Errekurtsoak. Errekurtso berezia kontratazio arloan

28.1. Erregulazio harmonizatuaren menpe dauden kontratuetan, errekurtso berezia eduki ahal izango dute behin-behineko esleipen-erabakiak, lizitazioa erregulatzeko klausula-orriak, prestazioaren ezaugarriak finkatzen dituzten egintzak eta aurreko prozeduran erabakitako tramite-egintzak. Azkenengo horiei errekurtso berezia egiteko, ordea, esleipenari buruz ebatzi beharko dute zuzen edo zeharka, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabaki beharko dute edo eskubideei edo zilegizko interesiei indenfentsioa edo kalte konponezina eragin beharko die.

28.2. Kontratazio arloko errekurtso berezia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 37. artikuluan arauta, administrazioarekiko auzi-errekurtso jarri baino lehen aurkeztu beharko da. Bere eremuan, ordea, ezingo da administrazio-errekurtso arruntik jarri.





28.3. Erregulazio harmonizatuaren menpe ez dauden kontratuetan, bidezko administrazio-errekurtsoak, hain zuzen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoak izango dira.

## **29. Eusko Legebiltzarraren ahalmenak eta jurisdikzio eskuduna**

29.1. Eusko Legebiltzarreko Mahaiak ahalmena izango du administrazio-kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratua aldatzeko, kontratua suntsipena erabakitzeke eta suntsipenaren ondorioak zehazteko. Hori guztia egiteko, kontuan hartu behar da zeintzuk diren Herri Administrazioen Kontratuen Legean ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak.

29.2. Horretarako erabakiak hartu baino lehen, entzun egin beharko zaio kontratistari eta txostena egin beharko du dagokion zerbitzu juridikoak. Erabakiok berehala eta nahitaez betetzekoak izango dira eta administrazio-bidea amaituko dute, indarrean dauden legerian ezarritako eskakizunak beteta.

29.3. Administrazio-bidea amaitzen duten erabaki guztien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen arabera. Eta aukeran, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz, berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organo beraren aurrean.





*AZALEKO ORRIAREN I. ERANSKINA*

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak:

.....

Helbidea:

.....

.....

Nortasun-agiri

nazionala:

.....

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)

Enpresaren

izena:

.....

Helbidea: .....

Posta-kodea: .....

Telefonoa: .....

Identifikazio fiskaleko kodea: .....

ADIERAZPENA

Izan dut, bai, dena delako kontratua esleitzeko lehiaketa-iragarkiaren berri.  
Hauxe da kontratuaren xedea:

.....

.....

II. Halaber, ezagutzen ditut Betebehar Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Berezien Agiria eta kontratu hau zuzenduko duten gainerako agiriak. Horiek guztiak berariaz onartzen ditut eta men egiten diet.

III. Ordezkatzen dudak enpresak, zabaldu, instalatu eta jardunean jartzeari dagokionez, indarrean dauden legeek eskatutako baldintza eta beharkizun guztiak betetzen ditu. Bestalde, eskaintza prestatzerakoan kontuan izan ditu enplegua babesteari, laneko baldintzei, lan-arritxiak prebenitzeari eta ingurumenari zaintzeari dagokionez indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebehar guztiak.







*KLAUSULA ORRIAREN II. ERANSKINA*

BESTE HOBEKUNTZA BATZUK, ESKAINITAKO PREZIOA GEHITU GABE, EGITEKO PROPOSAMENA

Prestazio hauek kontratuan adierazitako betebeharrei gehituko zaizkie eta ez daude sartuta esleipenerako beste irizpide batzuetan

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Nortasun-agiri nazionala: .....

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)

Enpresaren izena:.....

Helbidea: ..... Posta-kodea: .....

Telefonoa: ..... Identifikazio fiskaleko kodea: .....

Azaleko orriaren 34.1 puntuan eta agiri honetako 7.3.3 klausulan ezarritakoaren arabera, beste hobekuntza batzuetarako proposamen batzuk egiten ditut, eskainitako prezioa gehitu gabe, zenbaki honetako oinarritzko konponbide edo barianteari dagokionez (*zehaztu beharrekoa zehaztu*): .....

Kontratuan adierazitako betebeharrei gehitzeko prestazioak izango dira eta ez daude sartuta esleipenerako beste irizpide batzuetan.

*Hobekuntzetako bakoitza independentea izango da, halatan non Eusko Legebiltzarreko Mahaiak bere esku edukiko baitu horietako bat edo batzuk sartzea edo bat ere ez sartzea kontratuaren barruan.*

HOBEKUNTZAren zenbakia	
Hobekuntzaren azalpena:	

HOBEKUNTZAren zenbakia	
Hobekuntzaren azalpena:	

.....(e)ko .....aren .....a.

Izpta.:

NAN:





*KLAUSULA ORRIAREN III. ERANSKINA*  
BITARTEKOAK ATXIKITZEKO ETA EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO  
KONPROMISOA

Kaudimen teknikoaren egiaztapena osatze aldera, lizitatzailleak, exekuziorako bitarteko material eta pertsonalei dagokienez, honako hauek atxikitze konpromisoa hartu beharko du:

- I. Bitarteko materialak:
- II. Bitarteko pertsonalak:

BITARTEKOAK ATXIKITZEKO ETA EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO  
KONPROMISOA

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Nortasun-agiri nazionala: .....

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)

Enpresaren izena: .....  
Helbidea: .....  
Posta-kodea: .....  
Telefonoa: .....  
Identifikazio fiskaleko kodea: .....

ADIERAZPENA

Hitza ematen dut azaleko orrian eta klausula-agirian adieztako exekuzio-baldintza bereziak betetzeko eta kontratuaren exekuziora honako bitarteko hauek atxikitze: a) azaleko orrian exekuzio-baldintza berezi gisa jasotako bitartekoak, b) dokumentazio teknikoari buruzko gutun-azalean egiaztatutako bitartekoak, eta orobat, finkatuta baldin badaude, eranskin honetan adierazitako bitarteko pertsonal eta material konkretuak ere.

Eta hala jasota geratu dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau .....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

Izpta.:

NAN:



#### KLAUSULA ORRIAREN IV. ERANSKINA

### KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ EDUKITZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (notarioaren aurrean formalizatu behar da)

#### DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Nortasun-agiri nazionala: .....

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)

Enpresaren izena: .....  
Helbidea: .....  
Posta-kodea: .....  
Telefonia: .....  
Identifikazio fiskaleko kodea: .....

Hizpide den espedientea: ..... (\*)

#### ADIERAZPENA

Ez ni, ez ordezkaten dudan enpresa, ez enpresa horren administratzaile edo legezko ordezkarietako bat ere, ez gaude sartuta administrazio publikoekin kontratatzeari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan jasotako debeku-kasuetako batean ere.

Halaber, aipatutako enpresa hori egunean dago indarreko legeriak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruz agindutakoari dagokionez, eta konpromiosa hartzen dut ezen, behin-behineko esleipedun izaten banaiz, esleipen hori argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean egiaztatuko dudala eskakizun hori.

Eta hala jasota geratu dadin, sinatu egiten dut adierazpen hau  
.....(e)n, ..... (e)ko .....aren ..... (e)an.

Izpta.:

NAN:

(\*) Adierazi espediente-zenbakia, administrazio-klausula berezien agiraren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.





### KLAUSULA ORRIAREN V. ERANSKINA

## ENPRESAK ESKAINITAKO INFORMAZIO BATZUEI IZAERA KONFIDENTZIALA EMATEKO EREDUA

### DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Nortasun-agiri nazionala: .....

Ordezkatzen duen enpresa (bere kabuz ari ez bada)

Enpresaren izena: .....  
Helbidea: .....  
Posta-kodea: .....  
Telefona: .....  
Identifikazio fiskaleko kodea: .....

Hizpide den espedientea: ..... (\*)

### ADIERAZPENA

Kontratazio-espedientearen zenbakia (\*): .....  
Gutun-azala (*adierazi zein gutun-azal den*): .....

Gutun azal honetan aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jotzen dira eskaintzari buruzko honako informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta daudelako:

.....(e)ko .....aren  
.....a.

Izpta.:

NAN:

*(\*) Adierazi espediente-zenbakia, administrazio-klausula berezien agiraren azaleko orriko 3. puntuan jasota dagoena.*





## *KLAUSULA ORRIAREN VI. ERANSKINA*

### ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresek ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute B gutun-azalean:

1. Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharra daukate. Horretarako, erregistro profesional batean izena eman beharko dute, edo, bestela, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko I. eranskinean zehaztuta datozen egiaztagiria aurkeztu.

2. Lizitatuak bere izenean jarduten ez duenean edo pertsona juridikoa denean, ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du. Ahalorde hori, gainera, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko da.

3. Kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien eskumenaren menpe jartzeko adierazpena. Adierazpen horren barruan sartuko da, hala badagokio, lizitatuak egokitu dakioken atzerriko eskumen-azitegiari uko egitea ere.

4. Egiaztapena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako gorabeheretako batean ere ez egotearena.

Egiaztapen hori lekukotasun judizial edo administrazio-egiaztagiri bidez egin ahal izango da, kasuak kasu. Agintaritza eskudunak ezin baldin badu dokumentu hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da (IV. eranskina), agintaritza administratibo, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandakoa. Kasuan kasuko estatuaren legeriak aukera ematen badu, agintari judizialaren aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpenak ere balio izango du beste horien ordez.

5. Europako Erkidegoko kasuan kasuko estatuko agintaritza eskudunak egindako egiaztagiri, dena delako enpresak, aginte esleizaitzaileen estatuko legezko xedapenen arabera, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzeke. Agiri hau ere ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko du.

6. Sailkapena eskatzen bada, Europako Erkidegokoak bai baina espainiarrak ez diren enpresentzat nahikoa izango da dagokion kontratazio-organoaren aurrean gaitasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, klausula-agiri honen





azaleko orriko 31. puntuan eskatutakoaren arabera eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64. eta 66. artikuluei jarraituz.

Europako Erkidegoko estatuek euren enpresen alde egindako sailkapen-egiaztagiriek edo antzeko dokumentuek enpresa horien ustezko ahalmena adieraziko dute kontratazio-organoen aurrean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64.1.b eta c, 65.a eta 49.a, b, c, d, eta f artikuluetan ezarritakoari dagokionez.

7. Lizitatuzaileak, hala dagokionean, klausula-agiri honen azaleko orriko 17.1 puntuan eskatzen den behin-behineko bermea eman beharko du. Berme horrek kontratuaren aurrekontuaren % 3rainoko zenbatekoa eduki ahal izango du eta agiri honen 7.4.8 klausulan adierazitako moduan eratu da.

8. Europako Erkidegokoak ez diren estatuetako enpresa atzerritarrek, aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzez gain, ondoko hauek ere egiaztatu beharko dituzte:

a) Jarduteko ahalmena egiaztatzea, enpresak egoitza duen lekuan Espainiak daukan diplomaziako ordezkariak finkoak edo kontsuletzeko bulegoak emandako txosten bidez. Txosten horrek honako hau adierazi beharko du, aurretiaz enpresak egiaztataturik: enpresa horrek izena emanda duela hango lanbide edo merkataritzako erregistroan edo antzekoan, eta halakorik ezean, kontratuaren gaiaren eremuko jardueretan aritzen dela. Alabaina, Europako Ekonomia Espazioari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresak baldin badira, jarduteko ahalmena eranskin honetako 1. puntuan aurreikusitakoari jarraituz egiaztatu beharko dute.

b) Espainiaren kasuan kasuko misio diplomatikoaren edo Espainiaren Kontsul Bulegoaren bidez egiaztatzea enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, edo estatu horrek sinatua duela Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa. Azken hori egiaztatzeko, Espainiak kasuan kasuko estatuan duen ordezkari diplomatikoaren txostena beharko da.

c) Dokumentu bidez egiaztatzea baduela irekita sukurtsal bat Espainian helbidea duena, eta beharrezko eragiketarako ahalduak edo ordezkariak nominalki izendatu dituela.

d) Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahalduen ahalordetzeak ere inskribatuta dituela.

Baldin eta kontratuaren zenbatekoa –balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita– Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 15. artikuluan ageri den zenbatekoaren berdina edo handiago bada, Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio publikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako enpresei ez zaie eskatuko b) idatz-zatian aipatzen den elkarrekotasun-txostena.





*KLAUSULA ORRIAREN VII. ERANSKINA*

EUSKO LEGEBILTZARRAK ORDAINKETAREN ZATI GISA ESLEIPENDUNARI  
EMANGO DIZKION MATERIALEN ZERRENDA

